



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko otsailaren 17an

9 ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Nafarroan eta Foru Administrazioan sortzen eta deusezten den enpleguari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Administrazioak edo haren Erakunde Autonomoek dituzten mantenimen-du, garbiketa eta lan osagarrien mota guztietako zerbitzuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Kutsadura-guneen kokapenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Espezie babestuen bilakaerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Dehesako urtegitik Buñuel eta Ribaforadara bitarteko ubidea egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Zabortegi eta hondakindegia inkontrolatuak direla-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Estatuko Gobernuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eralda-tzeko duen asmoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- N-1 errepideak, Altsasu-Etxegarate zatian, daukan seinalizaziori buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Gaitasun txikiagoa dutenak laneratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Nafarroan aldi baterako kontraturik duden langileei eta horietatik Foru Administrazioan dauden kopuruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Zolinar proiektatutako “Hiri bioklimatiko” delakoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Nekazaritza Ganbaren arloan lekualdatutako langileek dituzten eginkizu-nei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Lurzatiaren baterakuntza-espeditente zenbaitzuen ebazpenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- “Rioja” jatorri izendapenari eta bere Kontseilu Arauemaileari dagokienez, lankidetzaren hitzarmenerako proiektuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

- Nafarroako Gobernuko Prentsa Zerbitzuaren euskararen erabilerari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Administrazio publikoetako langileen eskubide pasiboen erregimena arau-tzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Estatu mailan farmazia-faktura gutxitzeko berrikitan hartu den akordio-ak Nafarroan izanen duen eragina-riburuzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Medikuntza espezialitate batzuetako kontsultak emateko dagoen atzerape-nari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Tuterako Reina Sofía Ospitaleko itxaron zerrendei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroetan, basektomia zerbitzu-ko itxaron zerrendei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Haizerrota parkeak eraikitzeko izapidegintza-espedienteei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

F saila:
GALDERAK

Nafarroan eta Foru Administrazioan sortzen eta deusezten den enpleguari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroan eta Foru Administrazioan sortzen eta deusezten den enpleguari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko otsailaren 28an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna

Martín Landa Marco Nueva Izquierdako Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan eta Foru Administrazioan sortzen eta deusezten den enpleguari buruz. Hona erantzuna:

93, 94, 95, 96 eta 97 urteetako enplegu-sorkuntza eta -deuseztearen datuei dagokien zure galderari buruz, Nafarroako Gobernuaren programen eta eskumenen buruzapenean gaiari buruzko informazio orokorrik ezin daitekeela lortu jakinarazten dizut. Informazio hau kudeatzen duten erakundeak (INEM, INE eta INSS) Estatuko administrazioaren menpe daude.

Adierazitako erakundeen ditugun datuetan oinarrituz, adierazitako urteetako enplegu-sorkuntza eta -deuseztea ondokoa izan da:

Urtea	Lanean ari diren biztanleak	Aldea	Tasa
1992	176.000	-	-
1993	172.900	-3.100	-1,76
1994	176.000	+3.100	+1,79
1995	179.100	+3.100	+1,76
1996	194.700	+15.600	+8,70
1997	206.900	+12.200	+6,20

1997ko datuak, urria/azaroa artekoak, EPAk orain arte argitaratutako azkenak dira.

Enplegu-deusezteari dagokionez, datuak Administrazioak adiskidetze eta enplegu-erregulazazioko espedienteen bidez esku hartzen duen kasuei dagozkie soilik, eta ondokoak dira:

Urtea	Kaleratutako langileak
1993	5.163
1994	3.810
1995	2.680
1996	3.015
1997	2.697

Behin-behinekotasunari dagokionez, ez dago eskualdeka xehatutako informazio ofizialik behin-behinekotasun tasei buruz. Baliospenetan oinarrituz soilik ezin daiteke kalkulatu, eta %26 inguruko portzentaian kokatzen da.

Iruñean, 1998ko otsailaren 19an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna

Martín Landa Marco jaunak 1993 eta 1997 arteko urteetako enplegu-sorkuntza eta deusezteari buruz egindako galderari dagokionez eta zehazki 5. galderari –"Nafarroako Foru Administrazioari dagozkion datu hauen zerrenda"– erantzunez, Departamentu honek dituen datu historikoen arabera erantsitako taulan adierazten diren zifrak igortzen dira.

Iruñean, 1998ko otsailaren 23an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Indurain

ERANSKINA

Urteak	Lang. finkoak, guztira	Aldi baterakoak guztira (*)	Enplegua, guztira	Aldi baterako enplegu-tasa	Enplegu aldaketa	Aldaketaren portzentaia
1993	12.634	4.909	17.543	27,90%		
1994	12.569	4.587	17.156	26,70%	-387	-2,2%
1995	12.573	4.914	17.487	28,10%	331	1,9%
1996	12.500	4.951	17.451	28,30%	-36	-0,2%
1997	12.744	5.120	17.864	28,60%	413	2,3%

* Urte bakoitzeko abenduari dagozkion datuak adierazi ditugu; beraz, ez da ekitaldi osoan zehar lanean aritu diren urteko-pertsonen kopurua zehatz-mehatz adierazten (izan ere, azken datu hori erdietsi ahal izan da, 1997.etik aitzina, baliabide tekniko eta informatibo egokiak jarri direlako. Urteko 4.912 pertsona izan zen 1997ko datua).

Beste alde batetik, kontratatu diren langile guztiak aurkeztu dira agertu ditugun datuetan (ordezkapenak, MIR, programa bereziak, hutsuneak, egiturazkoak, etabar), eta aldi baterakoek zenbatekoa (hutsuneak eta egiturazkoak) txikiagoa da –urteko 3.217 pertsona, 1997an–, horri aplikatu behar baitzaizkio enplegua finko bihurtzeko neurriak.

Administrazioak edo haren Erakunde Autonomoek dituzten mantenimendu, garbiketa eta lan osagarrien mota guztietako zerbitzuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Administrazioak edo haren Erakunde Autonomoek dituzten mantenimendu, garbiketa eta lan osagarrien mota guztietako zerbitzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak galdera egin du Nafarroako Administrazioak edo bere Erakunde Autonomoek dituzten mantenimendu, garbiketa eta lan osagarrien mota guztietako zerbitzuei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

Lehenik eta behin, galderaren planteamendu orokorra nahasia dirudiela azpimarratu behar da, izan ere administraziorako kostuen gutxitzea eta

zenbait kasutako langileen babesik eza enpresa pribatuek lehen Administrazioak berak egiten zituen lanak egitearen ondorio dela hartzen baita oinarritzat; baieztapen hau okerra da, izan ere ez Administrazioak, ez bere erakunde autonomoek ez baidute lehen zerbitzu hauek egin zitzakeen pertsonala lanpostutik kendu.

Horrenbestez, planteatutako galdera zehatzek zenbait suposiziotarako baino ezin dute erantzunik izan; zerbitzu jakin batzuen gaineko hainbat ezaugarri dituzten kontratazioen ondorengo ezaugarri bereko administrazio-kontratazioak gertatzen direneko suposizioetan, alegia.

1. Ea Nafarroako Gobernuak benetan kontrolatzen dituen halako gertaerak, administrazioaren beraren edo haren erakunde autonomoen lehiaketak direnean.

Administrazio honek edozein motatako administrazio-kontratuetan aplika daitekeen araudia betetzen du, enpresa kontratatzaileetako langileak enpresa horiekin indarrean dagoen lan-araudiaren araberrako kontratuzko harremana erabat legezkoa izatea eskatuz. Adierazitako araudia da, enpresa-segidako kasuan, lehen lan bera egiten zuten langileen kontratazioan ezartzen dena (gar-

biketako langileen Hitzarmen Kolektiboan, esate baterako).

2. Nafarroako Gobernua jabetu al da batzuetan, ospitaleko mantenimendu teknikoak direnean, gaisoei eman beharreko arreta ere kaltetuta atera daitekeela?

Galderak zalantzazko hipotesi bezala planteatzen badu ere –"atera daitekeela"–, planteamendua onartezina da, izan ere, ospitalean dauden gaisoei eman beharreko arreta-zerbitzua enpresa pribatu batek eginen duelako okerragoa izateko arriskuan dagoela planteatzen baita.

Kontratazailearekiko dituen lan-betebehar guztiak betetzeko eskakizunaren kalterik gabe, batez ere gainbegiratu eta zaindu beharrekoa da kontratatutako ospitale-zerbitzua edo beste edozein zerbitzu zorrotz betetzen ote den.

3. Nafarroako Gobernuaren ustetan, zer neurri har daiteke horrelako arazoak saihestu eta langileen subrogazioa zerbitzuen esleipenaren beraren baitako gertakaritzat har dadin, kasu guztietan.

Arestian adierazi denez, galdera honek aipatzen dituen kontratazioak, Administrazioari dago-kionez, administrazio-kontratazioak dira. Horrenbestez, ezin daitezke lan-eremuari dagozkion langileak babesteko neurriak barne hartu, lehenengoan izaera juridikoa hutsalduz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Kutsadura-guneen kokapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak kutsadura-guneen kokapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 10eko 12. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

"Askotarikoa" Parlamentuko Taldeko (Grupo Mixto) Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du kutsadura-guneen kokapenari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. 1995ean epe labur eta ertainean ezinbestean jarduteko sailkatu ziren kutsadura-guneak zer egoeratan dauden 1998ko urtarrilean.

1995ean, epe labur eta ertainean jardun-beharreko hiru toki sailkatu ziren ahalik eta zuhurtasunik handienarekin, buruturiko inbentariotik atera ziren ondorioak behin-behinekoak baitziren.

Geroagoko beste lan sakonago batzuek erakutsi dutenez, kasu horietako bitan jarduera ez zen hain larria, eta hirugarren kasua hobeto zehaztu behar da.

Gaur egun, hiru leku horien egoera zehatza ondokoa da:

a) Zangoza: 1995ean, abuztu-azaroko denboraldian, lurraren kutsadurari buruzko ikerketa sakona burutu zuten, eta honako ondorio hauek atera zituzten:

– Kokalekuko lur naturalen gainean dauden hondakinek ez dute kalte berezirik ekarri.

– Azufrearen konposatu-kopuru handiek badute eraginik inguruetako lurrazpiko uren gainean; hasteko, uren kalitateak behera egin du. Dena den, Akuiferoak lehenik eta Aragoi ibaiak gero sortzen dituzten diluzio-efektueei esker, kontzentrazioak murriztu egiten dira maila onargarria izan arte.

– Beste kutsatzaileei buruz eginiko ebaluazioa ikusita, esan daiteke, ezen, ez gaur, ez bihar ez dutela eragin handirik izanen uren kalitatearen gainean.

Geroago, 1996ko irailetik 1997ko abuztua bitarteko denboraldian, lurrazpiko ur kalitate-kontrolak burutu dira, eta kalte aipagarriak ez dagoela

egiaztatu arren, kontrolak egiten jarraitzea aholkatu dute, bestelako neurririk hartu baino lehen.

b) Lodosa: 1995ean, abuztu-azaroko denboraldian, kokapenari buruzko ikerketa sakona burutu zen. Hona hemen ondorioa: tokiko lurretan eta lurrazpiko uretan agertzen ziren metalak (arsenikoa, kadmioa, kobrea, merkurioa, beruna eta zinka), nazioarteko mailan onartutakoetan baino kopuru handiagoetan agertzen ziren. Hori dela eta, deskontaminazioa derrigorrezkoa zen.

1996ko irailetik 1997ko abuztua bitarteko denboraldian, lurrazpiko uretan eginiko geroagoko kontrolak direla eta, garbi ikusi da beharrezkoa zela tokiko kutsadura kentzea; gainera, lurrazpiko urak ez ziren giza kontsumorako eta nekazaritzarako erabili behar.

Lorturiko emaitzak titularrei eta udalei jakinarazi zaizkie, neurri egokiak hartzen has daitezten. Honi lotuta ez badago ere, ikuspegi juridikotik, indarreko legediaren arabera zer inplikazio dau den aztertzen hasi dira, gai horri buruzko hainbat hutsune baitago.

c) Antsoain: 1996ko urtarrilean, kokalekuari buruzko ikerketa egin zuten. Hona hemen ondorioak:

– Lursailaren zati batean, olio mineralen kopuru handia dago. Dena den, inguruotako ezaugarri hidrogeologikoak kontuan hartu behar dira, iragazkortasun baxuko metarialetan kokaturik baitago; hori dela eta, inguruotako lurrazpiko urei ezin die kalterik ekarri.

– Euri-urak jasotzen dituen lubaki perimetrala dela eta, kokalekuaren inguruan sortutako isurketarik gehienek eta detektaturiko kutsadurak ez dute elkar ukituko.

Ondorioak ikusita, hainbat neurri hartzeko eskatu zitzaion titularrari, etorkizunean kutsadurarik ez dadin sortu.

2. Zer jarduketa burutu den (identifika bidez) Estatuko inbentarioak Nafarroan zuzendu beharrezkotzat jo zituen guneetan.

Inbentario nazionalean adierazitako puntuetan egin diren jarduerak honako hauek izan dira:

– Zangoza: Lurrazpiko uren kutsadura eta kalitate-kontrola sakon aztertu dira.

– Lodosa: Lurrazpiko uren kutsadura eta kalitate-kontrola sakon aztertu dira.

– Iruña: Lurrazpiko uren kutsadura eta kalitate-kontrola sakon aztertu dira. Deskontaminazioari buruzko proiektua idatziz jarri eta konponbide alternatiboak bilatu dira.

– Tafalla: Lurrazpiko uren kutsadura eta kalitate-kontrola sakon aztertu dira.

– Ekai: Lurrazpiko uren kutsadura eta kalitate-kontrola sakon aztertu dira.

– Lesaka: Lurrazpiko uren kutsadura eta kalitate-kontrola sakon aztertu dira.

– Lesaka: Lurrazpiko uren kutsadura eta kalitate-kontrola sakon aztertu dira.

– Bera: Kutsadura sakon aztertu da.

– Antsoain: Kutsadura sakon aztertu da.

3. Zein da egiteke dagoenaren egungo egoera, zer epetan eta zer martxan ekin nahi zaion, zein aurrekontu-kontusailen kontura eta zer laguntza lortzeko asmoa dagoen kohesio-fondoan kontura?

1997an, Nafarroan Kutsatuta Egon Litezkeen Lurren Inbentarioa burutu da, eta hortik atera diren emaitzak errealitatera hobeto egokituta dardela ikusi da.

Inbentarioa egiteko erabili den kutsaturiko lurkudeaketaren eskema, labur esanda, ondokoa da:

0 maila: Kutsatuta egon daitekeen kokalekua.

1. maila: Kokalekua begiz aztertzea.

2. maila: Kokalekuaren karakterizazioa.

3. maila: Kokalekua sakon aztertzea.

4. maila: Kokalekuan dagoen kutsadurak inguriolari zein arrisku dakartzkion ebaluatzea.

5. maila: Leheneratze-proiektuaren idazketa.

6. maila: Leheneratze-jarduerari ekitea.

7. maila: Lurrak leheneratuta.

8. maila: Leheneraturiko lurzorua monitorizatu eta kontrolatzea.

Hona hemen emaitzak:

1.- Lurrak kutsatu ditzaketen jarduerak:

– Industriak: 774

– Zabortegiak: 17

– Hornitegiak: 160

Jarduerak, guztira: 951

951 jardueretatik 279 aukeratu ziren (lurrak kutsatzeko arriskurik handienetakoak alegia), horien kokapena, jardueraren tamaina eta aintzinasuna kontuan hartuta.

2.- Begiz aztertutako kokalekuak

– Industriak: 106

– Zabortegiak: 13

– Hornitegiak: 160

Kokalekuak, guztira: 279

1998an, Inbentarioaren 2. mailarekin aurrera jarraitzeko asmoa dago, Degradaturiko inguruak berreskuratzeko izeneko kontusailaren kargura (1998ko Aurrekontuaren 90037-4 lerroa).

Harremanak bultzatzen jarraitzea ere aurreikusita dago; hala nola dagozkien titularrei eta udalei kargu hartzea ere, neurri egokiak har ditzaten.

Nafarroako Gobernuak eman ditzakeen dirulaguntzak, ekainaren 23ko 168/1997 Foru Dekretuan jasota daude, zeinaren bidez arautzen baitira industri jardueren ingurugiroari eragin diezazioke-

ten inpaktua aurreikusi, zuzendu eta kontrolatzeko dirulaguntzak. Deialdia berehalakoa egin-beharrekoa izanen da eta indarrean dagoen 11510-3 kontusailaren kargura finantzatzeko da.

97-99ko denboraldirako kohesio-fondoari eskatu zitzaizkion dirulaguntzak, bere garaian bota ziren atzera.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Espezie babestuen bilakaerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak espezie babestuen bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 10eko 12. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko (Grupo Mixto) Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Espezie babestuen bilakaerari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein bilakaera izan dute, azken bost urte hauetan, gure Foru Komunitatean babesturiko espezieek, eta horri buruzko zein datu bateratu (Icona eta Autonomi Erkidegoak) erabiltzen ditu Nafarroako Gobernuak? Baloratu diren espezieen zerrenda ere eskatzen da.

• Azken bost urte hauetan Nafarroan babesturiko espezieen zerrenda:

Hegazti harrapariak:

Harkaitzetako hegazti harraparien taldeak, oro har, kopuruari eutsi dio edota hobera egin du azken bosturtekoan.

Arrano beltzak, 1991ko eroldaren arabera, guztira 30 bikote ugaltzaile dira. Urte horretan bertan, belatz handietatik 56 bikote ugaltzaile ziren; eta saietatik, 160 bikote ugaltzaile. Hiru espezieen errola berriak hamar urtean behin egiten dira.

Hontza handiei dagokienez, 1986ko eroldaren arabera, 45 bikote ugaltzaile dira. Geroago, ez da errola berririk egin.

Miru gorriak, 1994ko eroldaren arabera, 1.000 eta 1.100 bikote ugaltzaile bitartean zeuden. Urte horretan bertan, miru beltzak 1.000 eta 1.200 bikote ugaltzaile bitarteko kopurua zuen; eta miru sagusazaleak, 1.000 bikote ugaltzaile ziren.

Arrano sugezaleak, 1996ko eroldaren arabera, 124 bikote ugaltzaile dira. Urte horretan bertan, arrano txikiak 171 bikote ugaltzaile zituen.

Sai arreak, 1994ko eroldaren arabera, 1.530 bikote ugaltzaile dira. Bost urtean behingo eroldak egiten dira. 1997. urtean, sai arreen jokaera ikertzeko, errola bat egin zen estatistika-metodok erabiliz. Erabateko errolatzat ezin da hartu, hala ere.

Ugatza babesteko eginiko ahaleginak, espezieak duen garrantziaren arabera izan dira. Azken bost urteotan, bikote habigileen kopuruak eta okupaturiko lurralde berrien kopuruak, poliki-poliki baina etengabe, gora egin dutela ikusi da;

gainera, mendebaldeko Mendialdearen zatia okupatzeko jarrera ere nabarmendu da; badirudi Pirinioz kanpoko lurraldeak berriro kolonizatzeo asmoa dutela.

Bonelli arranoak hiru bikote ugaltzaile ditu eta indar eta lurralde piska bat galdu du azken hiru urteotan; dena den, ale helduak berriz askatzea aurreikusita dago. Urtero erroldak egiten dira.

Estepako hegaztiak:

Estepako hegaztien taldea Nafarroako mediterraniar goi-lautadakoak dira jatorriz. Oro har, euren kopuruak bere horretan iraun du edota hobera egin du azken bost urteotan. Basoiloaren kasuan, tuter arriberako hainbat lurralde galdu badira ere, badago interes biogeografiko handiko gune produktibo bat, beste basoilo-lurralde batzuei lotuta; Lizarra inguruetan, adibidez, 20 bat ale bizi dira. Basoilo txikiak, berriz, 480 ar heldu dira guztira (ganga azpizuriak, berriz, 400-450 indibiduo dira). Ganga-taldea 450-750 indibiduo ingurukoa da. Atalar kopurua 1.000tik 1.500 bikotera bitartean dago. Dupont hegatzabalak 245etik 560ra bitarteko indibiduo-kopurua du. Mirotz urdin eta mirotz zuri-taldearen kopuruari dagokionez, 60-70 bikote ingurukoa dela baieztatu da. Naumann belatza 5etik 8ra bitarteko taldea da Tafalla inguruetan.

Hegazti urtarrak:

Hegazti urtarren taldea urtero-urtero aztertzen da Europa-mailan koordinatuta dauden errolda berezien bidez. Nafarroa estatu-mailako jarraipen-sareen barruan integraturik dago; eta Europaz gaindiko-mailan, Ramsar Hitzarmena betetzen duten nazioarteko leku heze garrantzitsuen jarraipenari heltzen zaio. Nafarroako leku hezeetan zenbat hegazti negutar dauden zehaztea zaila da, urte batetik bestera aldatzen baita horien kopurua (Europa-hegoaldeko egoera klimatikoa zein den eta Iberiar penintsula-barrualdeko leku hezeen egoera hidrolotikoa zein den). Anatidoen kopuruak ez du urtearteko aldaketa aipagarri handirik ekarri, antzarakumearen kasuan izan ezik; izan ere, Nafarroako lurraldean hedatzen hasi da, eta Pitillasko aintziran gero eta gehiago biltzen dira negua bertan igarotzeko. Ardeidoak nabarmen hobetu dira bai barietatez bai kantitatez, batez ere lertxun hausgara. Txirriei buruzko informazioa nahiko urria denez, ez dago jakiterik aldatzeko joerarik erakusten duten edo ez. Uroilandak leku heze berrien bila (El Ferial) abiatu dira eta garrantzia galdu dute natur erreserba nagusietan. Zingira-mirotzak (negutar eta habigile-hegaztiak) ohizko kopuruei eutsi die: 1991ko udako erroldaren arabera, 55 bikote ugaltzaile daude.

Habia egiteko garaian, anaido gehienetan ez da aldaketa aipagarririk gertatu; basahate-kopurua, berriz, aldatzen doa Nafarroa-hegoaldeko arroz-soroak zabaltzen diren neurrian. Ardeido habigileen artean espezierik enblematikoa txori zezen arrunta da (habia egiteko garaian, sarritan joaten da Pitillasko aintzirara, eta ez hain sarritan Las Cañasera; talde-gunea oraindik hasiberritan badago ere, uste izatekoa da aurrera eginen duela eta espezie sendo hau bizi daitekeen inguruak zabaltzen joanen direla). Lertxun gorriaren egoerak, oro har, hobera egin du. Uroiloa Nafarroako hainbat leku hezetan agertzen hasi da, eta hori baliteke ongi bilakatzen ari den adierazlea izatea.

Hegazti basotarrak:

Hobekien ezagutzen den basoko hegazti-taldea pizido-taldea da. Okil gibelnabarra da arriskurik handiena daukana; mendebaldeko nafar Pirinioetan bizi bada ere, Baztan aldeko pagadien aldera pittin bat zabaltzen hasi da (batez ere, Bertiz Jauregiko Parke Naturalaren inguruetan). 1993ko erroldaren arabera, Nafarroan bizi diren bikote ugaltzaileak 60-70 dira guztira, eta Europamendebaldeko gunerik garrantzitsuenak da. Okil beltza badirudi Mendialde inguruetan gehiago zabaldu dela. Okil ertainak Nafarroako amezti eta harizti kolino urrietan bizi izaten jarraitzen du.

Basoilarrak badirudi Zaraitzu Ibarreko mendebalde bete-betean zeukan babeslekua galdu egin duela. Roncal ibar garaiari buruzko datuen arabera, egoera iraunkorra da. 1993ko erroldan 25-30 ale zenbatzen dira Nafarroa osoan.

Subalpetar estaiko hegaztiak:

Azken bi urteotan, eper grisari buruzko ikerketa espezifikoa burutu dute. 1997ko erroldaren arabera, 15 eta 22 bikote ugaltzaile bitarteko kopurua dago Nafarroa osoan. Lagopodo zuria azken bi urteotan ikertu dute. 1997ko poblazio-datuek diotenez, gutxi gora-behera 5 bikote ugaltzaile daude Nafarroa osoan.

Ugaztunak:

Azken bost urteotan, aurrerapen izugarriak egin dira kiropteroei buruzko ezagutzari dagokionez, Nafarroarako bereziki eginiko doktoretza-tesi bati esker eta fauna-talde honen arriskurik gehien daukaten espezieak babestera bideraturiko hainbat ikerpen-lanei esker. Bechstein saguzarra, 70eko urteez geroztik Penintsulatik desagertuta, Lizason (Orgi basoan) aurkitu dute berriz ere, hariztik urtetsuenetan. Ferra-saguzar ertaina hiru eraikin zaharretako gela hutsetan hazten dela egiaztatu dute; guztira, 300 ale inguru daudela

kalkulatzen da. Arratoi-belarri txikia bi hazkuntza-koloniatan aurkitu dute (Erriberri eta Pitillas), eta guztira 250 ale dira (helduak denak). Basokoenak diren espezieen kopuruari buruzko datu nahikorik ez dago; espezie hauek dira: Bechstein saguzarra, gau-saguzar erraldoia eta gau-saguzar txiki edo ertaina.

Basoko mesougaztunen taldea gutxixe ezagutzen da. Lepahoria, lepazuria eta basakatua batez ere. Beste espezie batzuei (esaterako, Katajinetari) ez zaie jarraipen espezifikorik egin, eta beste landa-lan batzuetan aurkitutako aztarnengatik jakin ahal izan dugu haren joera demografikoaren berri.

Bisoi europarrari buruzko hainbat ikerpen espezifiko egin dira 1994, 1995 eta 1996 urteetan. Mendebaldeko nafar mendialdean nahiko zabaldua dagoela frogaturik dago, baita Lizarrako erriberan eta Ebro ibaiko hainbat lekutan. Informazio hori bi modutara uler daiteke: espeziea duela gutxi zabaltzen hasi dela, edota orain arte ez geneukan ezagutza lortzeko eginiko ahaleginaren emaitza izan dela. Europa-erdialde-mendebaldean bisoi europar-talderik handiena izanen da ziuraski. Ipurtatsari dagokionez, datuak oso eskasak dira eta aleak murrizten doazen ustea nahiko zabaldua dago adituen artean.

Igarabak Nafarroako ibai handietatik etengabe desagertzen jarraitu du. Gaur egun, 10 eta 16 alera bitarteko kopurua geratzen dela uste da (1996 urtea). Indibiduoak honela zabaldua daude: Aragoa ibaia (4-12), Ebro (1-2) eta Ega (1-2).

1994an marmotari buruzko ikerketa espezifiko burutu zuten. Roncalen eta Zaraitzuren goi-

ibarretako basoz gaindiko inguruetatik Orhi mendiraino zabaltzen da, Pirinioetako mendebaldeko mugaraino alegia. Hamar famili talde erroldaturik daude, guztira 53 alerekin.

Azken erroldaren arabera, sarriok guztira 130en bat ale izanen dira, bi gunetan sailkatuta. Larrako subalpetar sarrioa ugariena da eta Pirinioen goi-ibarretan, mendebaldean, lehengo kopuruak berreskuratzeko joera azaldu da.

Autonomi Erkidegoekin Koordinazioa:

- Biodibertsitatearen Zuzendariordeztza Nagusiaren eta Erkidegoen artean egiten den datu eta azkerketa-trukaketa, Flora eta Fauna Batzordearen barruan kokatu behar da. Horren barruan Lan Talde espezifikoak ere badaude, une jakin batean arreta berezia eskatzen duten espezieez arduratzeko.

Batera baloratzen diren espezieen artean, Nafarroan honako hauek daude: Naumann belatza, lagopodoa eta eper grisa, Bonelli arranoa, basoiloa, txori zezen arrunta eta sai arrea. Aztertu diren gehienak gutxi gora-behera desagertzeko arriskuan daude Estatu osoan edota interes handiko espezieak dira Europa mailan.

Ugatza eta hartz arreei buruz, lan-talde monografikoak daude, euren egoera eta interesa bereziak baitira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

ESPEZIEAK

Espezie/ Kataloan sartu ziren urtea	Errolda urtea	Azterketa teknikoaren urtea	Zenbat ale
Hontza handia (93)	1986	&	45 b.
Arrano beltza (93)	1991*	2001	30 b.
Sai zuria (93)	1991*	2001	160 b.
Belatz handia (93)	1991*	2001	56 b.
Zingira-mirotza (93)	1991	&	45 b.
Basoilarra (93)	1993	&	25-30 b.
Ohil gibelnabarra (93)	1993	&	60-70 b.
Sai arrea (93)	1994**	1999	1530 b.
Miru gorria (93)	1994	&	1000-1100 b.
Miru beltza (93)	1994	&	1000-1200 b.
Zarpelatza (93)	1994	&	1000 b.
Arrano sugezalea (93)	1996	&	124 b.
Arrano txikia (93)	1996	&	171 b.
Igaraba (93)	1996	&	10-16 ale
Naumann belatza (93)	1997	&	5-8 b.
Eper zuria (93)	1997	&	5 b.
Eper grisa (93)	1997	&	15-22 b.
Ugatza (93)	1997***	1998	8 b.
Bonelli (93)	1997***	1998	3 b.
Basolioa (93)	1997***	1998	20-22 ale
Basoilo txikia (93)	1997	&	450 arra
Ganga (93)	1997	&	450-750 ale
Atalarra (93)	1997	&	1000-1500 b.
Hegatxabala (93)	1997	&	245-560 ale
Mirotz urdina (93)	1997	&	60-70 b.
Mirotz zuria (93)	1997	&	60-70 b.

* 10 urtez behingo jarraipena egiten den espezieak.

** 15 urtez behingo jarraipena egiten den espezieak.

*** Urtean behin jarraipena egiten den espezieak.

& Aldez aurretik zehaztutako egutegirik ez duten espezieak. Gutxienez 10 urtez behin aztertzen dira.

Dehesako urtegitik Buñuel eta Ribaforadara bitarteko ubidea egiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Dehesako urtegitik Buñuel eta Ribaforadara bitarteko ubidea egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua” Parlamentuko Taldeko Ion Iñaki Erro Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Ablitasen 200 olibondoren ebaketari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak txostenik egin al du obra horri buruz? Baiezkoan, zein da haren edukia? Ezezkoan, zergatik ez da egin?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak ez du txostenik egin

adierazitako obrari buruz, ez baitu horretarako eskumenik. Olibondoak zurezko laboretzat hartzen dira, eta horrenbestez, nekazaritzako izaera dute eta ez basokoa. Hori dela-eta, horien kudeaketak (inausketak, mehetzeak..) ez du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren eskuhartzerik eskatzen.

2.- Edozein kasutan ere, zein iritzi du Ingurugiro Departamentuak Ablitasko obra horrek hango basoan ekarri duen galerari buruz?

Lehen ere erantzun denez, termino administratiboak kontuan izanda, olibondoak ez dira basomasa, beste edozein frutarbola bezalako labore baizik; ildo horretan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, jarduketa horren alde edo aurka egon daitekeen arren, ez du eskumenik horri buruzko txostenik egiteko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Zabortegei eta hondakindegiei inkontrolatuak direla-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Zabortegei eta hondakindegiei inkontrolatuak direla-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko urtarrilaren 12ko 3. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du zabortegei eta hondakindegiei inkontrolatuak leheneratzeari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Ea Nafarroako Gobernuak plan zehatzik ote duen leku horiek leheneratzeko. Hala bada, zertan datzan plan hori, zein den inbentarioaren arabera ezarri den hurrenkera, zein irizpide erabiliz, ea kalkulatu diren gutxi gora-beherako kostuak

eta zein diren leku hondatu horiek deusezteko aurreikusi diren planak (egutegia emanez).

Nafarroako Gobernuaren jarduketa indarrean dagoen Hiriko Hondakin Geldoen Plan Nagusia aurreikusitako laguntzetara mugatzen da, kondar eta hondakinen kudeaketa –eta horien artean eraikuntzakoak eta etxeko konponketetako obra txikiak– udalaren erantzukizunpean baitaude. Dena den, eta aurrekontuak eskaintzen dituen aukeren barruan, eskualde jakinak leheneratzeko zenbait proiektu txiki egin izan dira, jardutea komenigarritzat hartu den kasuetarako ekintza subsidiario gisa.

Prebentzio-lana erremediatze soilaren aurretik dagoela uste dugunez, eta hondakin eta hondeaketako materialen kudeaketarekin erlazionatutako ekintzak eta jarduerak sustatzeko, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak Lankidetzaren Hitzarmena izenpetu zuen 1994an Nafarroako Herrilantetako Kontratisten Elkartearekin (ANECOP), Eraikinen Eraikitzaile Promotoreen Probintziako Elkarte (ACP) eta Hondakinen Kudeatzaileen Elkarte (AGERENA) ere tartean sartuz. Hitzarmen hau eskualde hondatuak hondakinen eta lurren gaikako eta lehentasuneko ekarpenaren eta ondorengo lursailen egokitzapen eta bereoneratzearen bidez leheneratzeari zuzenduta dago. Nafarroako Gobernuak ekintza honek zabortegei bateko isurketa konbentzionalarekiko duen kostuaren aldea bere kontura hartzen du. Honela, garrantzizko bost proiektuei ekin zaie, eta horien arteko hiru amaituta daude. Nafarroako Gobernuaren ekarpen ekonomikoa gaur egun arte 43.504.182 pta. izan da, egindako guztirako inbertsioaren %19,51, hain zuzen ere.

Gaur egun, Beriain-Gatzagako urmael bat leheneratzeko proiektuari ekin zaio ANECOP-en laguntzaz; proiektuaren kontrata bakoitzeko, burutzapenaren guztirako aurrekontua 650 milioi da eta Nafarroako Gobernuaren finantzaketa %35ekoa izanen litzateke, 4 eta 6 urte arteko aurreikusitako iraupenarekin.

2.- Ea Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen abian jartzea berrerabiltzeko plantaren bat, hondatutako lekuak leheneratze lanetan eta birziklatzean batera jarduteko. Hala bada, zein epe aurreikusi den hura abian jartzeko. Kontrako kasuan, zein diren hori ez egiteko dauden arrazoiak.

Orain arte Potasas de Subiza enpresaren fabrikazio-esterilen isurketarako erabilitako Beriain-Gatzagako gatz-hondakindegia leheneratzeko proiektuan eta ANECOP Elkartearekin izenpetutako lankidetzaren hitzarmenaren esparru berean, hondakinak berrerabiltzeko planta jartzeko aukera aurreikusita dago, bideragarritasun-azterlanek hala aholkatzen badute. Ekimen pribatuko instalazio berri batek ez du nahi zen arrakasta lortu.

3.- Zabortegei inkontrolatuek eta hondakinak botatzeak kutsaturiko eskualdeetan kutsadura deusezteko plana abian jarri ondoren, zein neurri hartu nahi dituen Gobernuak (orain artekoek baino eraginkortasun handiagoa izanen dutenak) eskualde horiek leheneratzearen alde egin den lana alferrik izan ez dadin, hau da, zabortegeiak edo hondakindegia beste leku batera eraman ez daitezela.

Hondakindegia edo zabortegei inkontrolatu berriak agertzearen prebentzio-lanak zenbait jarduketa-lerro ditu oinarritzat.

Alde batetik, erkidatutako udal-hondakindegien sarea indartzea, aurtengo aurreikusitako Hiriko Hondakin Geldoen Plan Nagusiaren berrazterketak finkatzen duen esparruan.

Bigarrenik, arestian adierazitako ANECOP elkartearekin izenpetutako hitzarmenaren ondoriozko jardueraren eskualde gehiagora zabaltzeak isurketa-puntu egoki gehiago izatea ahalbidetuko du, bai eta elkartutako enpresen jarduerari praktika egokia gaineratzea ere, zabortegei edo hondakindegia berriak agertzea saihestuz.

Azkenik, lurraldean jarduten duten jagole-zerbitzu desberdinen zaintza eta, hala badagokio, leheneratzeko obligazioa barne hartzen duen ekintza zigortzailea. Ingurugiro-jagoletzaren zaintzaren emaitzak dagozkion udalerriei jakinarazten zaizkie dagokion moduan jardun dezaten. Hortaz gain, eta udalari horiek ekintza juridikoak egin beharko balituzte, badago beharrezkoak diren kanpo-aholkularitzen finantzaketarako laguntza-lerro bat.

Hori guztia jakinarazi dizut Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 18an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Estatuko Gobernuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eraldatzeko duen asmoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak Estatuko Gobernuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga eraldatzeko duen asmoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua» Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Estatuko Gobernuak Pertsona Fisikoen gaineko Zerga eraldatzeko duen asmoari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

Jakina denez, joan den 1997ko urriaren 28an Hitzarmen Ekonomikoa Aldatzeko Akordioa izenpetu zen Nafarroako Foru Komunitatearen eta Estatuaren artean. Aldez aurreko bilkuretan, Estatuko Administrazioaren ordezkariak 1998an Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren erreformari ekiteko asmoa adierazi zuten. Une horretan, Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkariak Ekonomia eta Ogasun Ministerioa PFGZri buruz egiten ari zen aurretiazko azterketen garapen-

mailari buruz zehazki informatuta egon behar zuela jakinarazi zuen.

Adierazitako aurretiazko azterketa horiei buruzko elementu garrantzitsuenetako bat «PFGZren Erreformatarako Azterketa eta Neurrien Proposameneko Batzordeak» landutako txostena da. Txosten hori joan den 1998ko otsailaren 13an eman zitzaion Ogasuneko Estatu Idazkaritzari, eta Nafarroako Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak jaso zuen une beran, gure Komunitateko Parlamentuko Talde guztien eskura jarri zen.

Hortaz gain, datorren martxoan, Ekonomi eta Ogasun Kontseilari honek lan-bilkura izanen du Ogasuneko Idazkari Nagusia den Juan Costa jaunarekin lehen adierazitako txostenaren edukia sakon aztertzeko eta bertan bildutako proposamenen aurrean Ekonomia eta Ogasun Ministerioak duen jarrera ezagutzeko.

Bilkura horren ondoren, Nafarroako Gobernuak Estatuaren jarrera baloratuko du, eta egokia iruditzen zaion erabakia hartuko du Foru Komunitateko PFGZren erreforma bat egiteari dagokionez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 26an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María-Aracama Yoldi

N-1 errepideak, Altsasu-Etxegarate zatian, daukan seinalizaziori buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak N-1 errepideak, Altsasu-Etxegarate zatian, daukan seinalizaziori buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du N-1 errepideak, Altsasu-Etxegarate zatian, daukan seinalizaziori buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- N-1 errepidearen Altsasu-Etxegarate zatian ikus daitezkeen bide-lerroen seinalizazio-akatsak zuzenduko al dira?

Bide-lerroak Irurtzungo kontserbazio-kontrataren bidez berriz pintatzea aurreikusita dago.

2.- Noizko jotzen du Departamentuak seinalizazio askatasuna zuzenduta egonen dela?

1998ko martxoko kontserbazio-jardueren egitarauaren barruan sartuta dago hori.

3.- Zati horretako ostalaritza-establezimenduetan sarrera- eta irteera-bideak egiteko beharrezkoak diren neurriak hartuko al dira?

Gaur egun, Altsasuako Lotune bukaeraren eta Gipuzkoako mugaren artean doan N-1 errepidea birreraikitze proiektua idatziz jartzen ari dira. Geroago, bide hori autobia bihurtuko da, eta trazaraketa eta gaur egungo errepidea erabat bereizita egonen dira; hau da, lotune baten bidez autobiaritu eta zerbitzu-bidea izatera pasatuko da.

Aipaturiko lanak 1999an hasia aurreikusita dago. Beraz, aipaturiko bide-zatiko ostalaritza-establezimenduetarako sarbide-irteera berririk egi-teari ez zaio beharrezkoa irizten.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

Gaitasun txikiagoa dutenak laneratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak gaitasun txikiagoa dutenak laneratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 10eko 12. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du gaitasun txikiagoa dutenak laneratzeari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1. 1998 urterako enplegu eskaintza publikoan, aintzat hartu al du Nafarroako Gobernuak Parlamentuak hartu zuen erabakiaren 2. puntuari bildu-

takoa, alegia, zerbitzu orokor eta laguntzaileetako lanpostuetako zuzeneko erreserba egitea eta gaitasunetan murrizketa duten pertsonen trebetasunei buruzko irizpide eta probak ezartzea?

Gai horri buruz esan behar da oraindik ez dela 1998ko enplegu eskaintza publikoa onartu; dena den, laster onartuko da, 1998ko otsailaren 5ean Kontseilari honek Parlamentuan emandako azalpenen arabera.

Elbarrientzako lanpostuak gordetzeari dago-kionez, indarrean dagoen araudiaren arabera jokatzeko asmoa dago, halaxe egin baitzen aurreko eskaintzan ere, uztailearen 1eko 264/1996 Foru Dekretuaz onetsitakoan, zeinaren 2.1 artikulua hala agintzen baitu: "Minusbaliatu fisiko, psikiko edo sensorialek parte har dezakete, gainerako izangaien baldintza berberetan, lan eskaintzako lanpostuak betetzeko deialdietan, baldin eta minusbaliotasun horiek bateragarriak badira dagozkiekeen betebeharrak edo eginkizunekin. Horretarako, probetan behar diren egokitzapenak egiten dira, eskabidea aurkeztu eta minusbaliotasuna eta bateragarritasuna egiaztatzen dituzten izangai minusbaliatuentzat, beti ere egiaztapena Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko organo eskudunek egin beharko dutelarik. Nolanahi dela ere, kasuan kasuko lanpostuaren eginkizunetan aritzeko, minusbaliotasuna bateragarria dela egiaztatzeaz gain, behar den azterketa medikoa gainditu beharko da, Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sartu aurretik probak pasa dituzten izangai guztiei hala eskatzen baitzaie."

Artikulu honek bat egiten du Administrazio honetako lan-pertsonalarentzako Hitzarmen Kolektiboaren 12. artikuluekin, eta Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren 7. xedapen gehigarriarekin.

Aipaturiko testuen arabera, bi puntu zehaztu behar dira (eta halaxe egiten da): jar daitezela elbarrien txandako probak egin behar dituztenen esku, probak aurrera eramateko behar diren baliabide material guztiak. Beste alde batetik, %33ko ezintasuna edo gehiago duten elbarrientzako erreserba bete egiten da eta, jakina, %60tik gorako ezintasuna dutenak ere sarturik daude horren barruan. Dena den, kontuan hartu behar da, ezen, azken portzentaia horretarako ezin dela diskriminazio positibo espezifikorik ezarri, hori ezartzen duen araurik gabe; bestela, gainerakoentzat legez kanpoko diskriminazio negatiboa izanen litzateke, eta ondorioz, funtzio publikoan jarduteko oinarriko printzioen aurka joanen litzateke.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna

"Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du gaitasun txikiagoa dutenak laneratzeari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

2. Nafarroako Gobernuak INEMen bulegoak kudeatzeko ardura hartuko du uztailetik aurrera, kontuan hartu al da 4. puntuak Nafarroako Enplegu Zerbitzu berriaren eta Balorazio eta Elbarritasun Zentru Oinarrizkoaren arteko koordinazioari buruz dioena, gaitasunetan murrizketa duten pertsonen enplegua laguntzeko orduan?

1998ko urtarrilaren 1az geroztik, Nafarroako Gobernuak jaso duen INEMen eskumen bakarra lanbide-heziketa okupazionalaren kudeaketa baino ez da izan, hau da, enplegu-bulegoek beste erakunde horren esku jarraitzen dute. Beraz, gaitasunetan murrizketa duten enplegu-eskatzailen erregistroaren eta Gizarte Ongizate Departamentuko Balorazio eta Elbarritasun Zentru Oinarrizkoaren arteko koordinazioak aipaturiko erakundearen esku jarraitzen du.

4. Gobernuak 800 milioi pezeta arteko aportazioa egin du lanbide heziketa jarraiturako, kontuan hartu al dituzte Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Heziketa, Birtziklai eta Enplegurako Institutuak gaitasunetan murrizketa duten pertsona horiek?

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren eta INAFREren artean izenpetutako Hitzarmenak heziketa jarraituaren gainean bakar-bakarrik du eragina, hau da, aktiboan ari diren langileen heziketa jarraituaren gainean baino ez du eragina. Beraz, gaitasunetan murrizketa duten langileek ikastaroetan parte har dezakete gainerako plantilak dituen berdintasun-baldintza berberetan.

Dena den, langabetuen heziketa arautzen duen Foru Aginduak badu programa berezi bat murrizketa duten pertsonen zuzenduta, haiei laneztatzen laguntzeko.

Iruñean, 1998ko otsailaren 25ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du gaitasun txikiagoa dutenak laneratzeari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak, aipaturiko kolektiboen artean lanpostuak sustatzeko aukera kontuan hartu du Kontratuari buruzko Foru Lege proiektuan (oraindik Parlamentuan tramitatzen ari denez, baliteke hainbat aldaketa bertan jasotzea), bederatzigarren xedapen gehigarriak hala baitio: “Kontratazio organoek administrazio klausula partikula-

rren pleguetan lehentasuna ipini ahalko dute kontratuak esleitzerakoan proposamen jakin batzuen dako, alegia, beren kaudimen tekniko frogatzeko unean plantilan 100eko 2 baino txikiagoa ez den langile minusbaliatuen kopurua duten enpresa publikoek edo pribatuek aurkezten dituztenendako. Beti ere proposamen horiek, esleipenaren oinarri diren irizpide objektiboen ikuspuntutik one-nak direnekin parekatzen ahal direnean”.

Hori guztia jakinarazi dizut Erregelamenduen 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

Nafarroan aldi baterako kontrataturik duden langileei eta horietatik Foru Administrazioan daudenen kopuruari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Nafarroan aldi baterako kontrataturik duden langileei eta horietatik Foru Administrazioan daudenen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna

Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan kontrataturik dauden langileei eta horietatik Foru Administrazioan daudenen kopuru eta portzentaiari buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Ebentualtasunari dagokionez, ez dago ebentualtasun-tasei buruzko eskualdeka xehatutako informazio ofizialik. Baliospenetan oinarrituz baino ezin daiteke kalkulatu, eta gutxi gorabehera %26ko portzentaian kokatzen da.

Iruñean, 1998ko martxoaren 5ean

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat.

Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak galdera egin du bereziki Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta oro har Nafarroako lan-merkatu osoan dagoen ebentualtasunari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbat aldibaterako langile ari da Nafarroan lanean, eta horietatik zenbat Foru Administrazioan, kasu bietan aipatuz kopurua eta, gainera, lehenengoan Nafarroako langile guztiekiko proportzioa eta bigarreanean Administrazioako langile guztiekikoa.

Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari dagokionez, 1997 urteko langile ebentualen kopurua, ebentualtasun-kausa guztiak barne hartuz, 1997an kontrataturiko pertsonal osoaren guztirako lanegunen kopuruaren arabera kalkulatu da, adierazitako zifra hori 365 egunez zatituz, eta horrek urte osoan zehar lan egin duten pertsona/urte guztirakoa emanen du.

Adierazitako formularen arabera, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan izandako guztirako ebentualtasuna, lanpostu hutsak betetzeari lotutako kontratazioak, sistemaren egitura-premiei erantzuteko kontratazioak, enplegatu finkoak ordezkatzeko kontratazioak (amatasun-bajak, oporraldiak,

baimenak, amatasun-eszedentziak eta abar) eta beste hainbat berariazko kontratazio (MIR, QIR, FIR eta PFO programak, kanpainak, bekadunak, jarduera handia eta abar) ere barne hartuz, guztira 4.912 pertsona/urte izan da 1997an.

Adierazitako guztirako ebentualtasun-zifra horretan, ikus daitekeenez, enplegatuen ordezkapenagatiko eta berariazko premiei erantzuteagatiko kontratazioak barne hartzen dira; kontratazio horietan ezin dira adierazitako enplegua finko bilakatzeko jarduketa-neurriak aplikatu, gehienez ere adierazitako ebentualtasuna gutxitzera zuzendutakoak baizik, pertsonala kudeatzeko deszentralizatutako prozesuetako hobekuntzaren bidez.

Adierazitako 1997ko 4.192 pertsona/urte guztirako ebentualtasunaren portzentaia %27,8koa da, 1997ko abenduaren 31ko pertsonal finakoaren guztizkoarekiko.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan bertako lanpostu hutsak aldi baterako betetzeko eta sisteman iraunkorrak direla ikus eta nabarmen daitezkeen premiei erantzuteko, 1997an kontraturiko urteko guztirako pertsonen kopurua, nahiz eta lanpostu huts baten betetze formala ez izan, eta aldi berean esleitu eta bete beharreko lanpostuak badaudela agerian uzten digutenak, guztira 3.127 pertsona/urte izan da 1997an.

Zifra horretan oinarrituz neurriak har daitezke Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan enplegu finkoa handitzeko.

1997an kontraturiko 3.127 pertsona/urte zifra %19,7 da 1997ko abenduaren 31ko pertsonal finakoaren guztizkoarekiko.

2. Administrazioaren kasuan, zer arrazoi dago egoera horrek irauteko.

Dauden lanpostu hutsak betetzeko aldi baterako kontratazioari dagokionez, lanpostu hutsak bete eta lanean hasteko prozesuek zailtasun tekniko handiak dituztela ikus daiteke, eta berdintasun, meritu eta gaitasuneko printzipio konstituzionalen arabera Foru Komunitateko funtzio publikoan behin betiko izaera finkoarekin lan egin hasteko egokienak direla egiaztatzen dutenek ezin dituzte lanpostu huts horiek azkar eta arintasunez bete.

Honela, oposizioko eta oposizio-lehiaketako deialdian kopuru handiak, horietan aurkeztutako izangaien kopuru handiak, hautaketa-prozesuen esparruko administrazio- eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoak jartzearen bidezko geroz eta handiagoa den auzitara jotzeko joera eta abar,

lanpostu hutsak bete eta lanean hasteko prozesuek izaten dituzten zailtasun teknikoen adierazgarri dira.

Horrekin batera, hiritarrek duten aukera-berdintasunerako eskubidea zaindu behar da, eta funtzionario berriak poliki-poliki lanpostuan hastea ahalbidetu behar da, prozesu hori hezkuntza-promozio desberdinak kontuan hartzen dituen denborari dagokion mailakatzearekin uztartuz.

Azkenik, eta egin beharreko zerbitzuen eragin-kortasuna oinarritzat hartuz, ez da komenigarria une jakin bakar batean

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan lanpostu hutsak behin-betiko izaeraz betetzeko eskaintza publiko guztia biltzea, enplegatu asko eta asko bat-batean eta denborari dagokion ordenarik gabe hasiko bailirateke lanean, eta horrek eraginak izanen lituzke zenbait zerbitzutan.

Era berean, giza baliabideen gaitako ardura-dunei nolabaiteko malgutasuna eta kudeaketa-gaitasuna eman behar zaie betiere, hiritarrari zerbitzu publikoa ematean gertatzen diren aldaketa etengabeei ahalik eta hobekien erantzuteko; horretarako, beharrezkoa da nolabaiteko ebentualtasun-maila izatea.

Egiturazko izaerako beharren arretarako kontratazioaren ondoriozko ebentualtasunari dagokionez, irakaslegoaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren pertsonalaren esparruetan biltzen da.

Irakaslegoari dagokionez, hezkuntza-sistema berriaren ezarpenak irakasle-plantilen zehaztapenik eza ekarri du azken urteotan. Une honetan, Lehen mailako Hezkuntzan zehaztapen falta hori gairitu dela esan daiteke, eta bizpahiru urte eman beharko dira Bigarren mailako Hezkuntzan egoera berera iritsi arte.

Irakasleen plantilen gaur egungo zehaztapen-prozesuak amaitzen direnean, enplegatu finkoek beharrezkoak diren lanpostuak betetzeari ekin ahal izanen diote, Nafarroako gizarteari hezkuntza-zerbitzu egokia emateko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari dagokionez, INSALUDtik eskualdatutako zerbitzuak jadanik Nafarroako Foru Komunitatean daudenean behar bezala bateratzeko beharrak, zentro berriak irekitzeak eta zerbitzu berriak emateak, bai eta izaera dinamikoak eta edozein gizarte aurreratuan osasun-prestazioak duen bilakaera etengabeak, nolabaiteko egiturazko lanaren maila izatea eta garatzea ahalbidetu dute, bai eta horren ondoriozko ebentualtasuna ere.

Adierazitako egoera poliki-poliki arindu behar da, lanpostuen plantila erantzun beharreko beharrekin bat etorri arte egokituz, eta aldi berean pertsona finkoak lanpostuak betetzeari arreta eskaini behar zaio, kudeaketako eraginkortasunaren ondoriozko salbuespen justifikatuak izan ezik.

3. Zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak datuok 1998an zehar murrizteko eta zer kopuru jotzen du arrazoizkotzat 1998ko azken aldera lortzeko.

Edozein Administrazio Publikok hemen zehaztutako ebentualtasuna murrizteko eta ezabatu nahi izateko dituen baliabideak, plantila organikoan jadanik dauden lanpostuak betetzea eta, hala badagokio, lanpostu huts berriak sortu eta ondoren betetzea dira.

Honela, une honetan, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioak 1.638 lanpostu huts ditu, Foruzaingoaren eta Su Itzaltze Zerbitzuaren Plan Nagusiei dagozkienak barne hartu gabe.

Hau honela izanik, ebentualtasuna murrizteko gaur egungo Nafarroako Gobernuaren jarduketak, lehenik, aurreko enpleguko eskaintza publikoaren ondoriozko lanpostu hutsak betetzeko prozesuak amaitzeari zuzenduta daude; 623 lanpostu dira, guztira.

Bigarrenik, Nafarroako Gobernuak duela gutxi Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan 259 lanpostu huts sortzeari ekin dio, eta zifra honek automatikoki eta ezinbestean izaera iraunkorreko premien arretaren ondorioz adierazitako erakunde autonomoan dagoen estrukturalitatea murriztuko du, eta lanpostu huts baten sostengu formalik gabe.

Hirugarrenik, 1998an onetsi beharreko enplegu-eskaintzan guztira 880 lanpostu inguru barne hartuko dira, hau da, Nafarroako Foru Komunitatearen

Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan dauden lanpostu huts guztien bi herenak, Foruzaingoaren eta Su Itzaltze Zerbitzuaren Plan Nagusietan urtero aurreikusitako lanpostuak bazter utzita; guztirako zifra horretan Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan sortu berri diren 259 lanpostuak ere sartu dira.

Laburbilduz, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan eta bere erakunde autonomoetan jardun daitekeeneko eta jardun beharreko ebentualtasuna 3.127 pertsona/urte izan bada 1997an, 623 lanpostuko aurreko enpleguko eskaintza publikotara lotutako amaierak eta 1998ko 880 lanpostuko enpleguko eskaintza publikoaren onepena 1.503 lanpostu egiten dituzte guztira, eta horrek adierazitako ebentualtasuna ia %50eko portzentaian murriztea dakar.

Batetik lanpostu hutsengatiko eta estrukturaltasunarengatiko kontratazioaren ondoriozko ebentualtasunak –Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen 1997ko abenduaren 31ko pertsonal finkoaren guztizkoarekin alderatuta– eta bestetik adierazitako 1.503 lanpostuen gainean deskribaturiko jarduerak burutzeak, ebentualtasuna murriztea ekarriko dute, gaur egun dagoen %19,7tik %10,2ra; dena den, murrizketa horri dagozkion zifrak ezin dira 1998an lortu, hautespen-prozesuekin batera azaltzen diren lehen deskribatutako zailtasunak direla-eta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko otsailaren 20an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Zolinar proiektatutako “Hiri bioklimatika” delakoari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Zolinar proiektatutako “Hiri bioklimatika” delakoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 16ko 13. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Zolinar proiektatutako “Hiri bioklimatika” delakoari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein den 811 familibakarreko etxebizitzaren Hiri Bioklimatikoaren proiektuarekin Nafarroako Gobernuak erdietsi nahi duen helburua.

Zolinar hiri bioklimatikoaren proiektua, Nafarroako Gobernuak etorkizunaren alde eginiko erroka da. Etxebizitza-alarrean Europan gaur egun erabiltzen diren irizpideekin bat dator proiektua, kasu honetan jarduera osatuago eta biribilago planteatzen badu ere; esaterako, helburua ez da bakanduriko etxeak eraikitzea (horri buruzko esperientzia handia bildurik baitago), baizik eta energiaren aldetik autosufizienteak izanen diren guneak bultzatzea; hau da, energia berriztagarriak erabili nahi dira, eta ondorioz, ingurugiroari begirunea erakutsi.

Halako ezaugarriak izanen dituen eraiketak ez du oharkabean pasa behar Nafarroan, batez ere proiektua ongi bideratzeko baldintzak onak izanik. Gainera, aurrera eramanez gero, alor horretan Nafarroa ezin hobeto geratuko litzateke Europako Batasunaren aurrean, aukera kontaezinak eskaintzen baititu: esperientziaz, erakustokia edota enpresa-mailako jardueren pizgarria eraikuntzako eraginkortasun energetikoaren alorrean, e.a.

2. Esperientzia pilotu gisa, jarduketaren tamaina gehiegizkoa izan litekeela ez al duen pentsatzen Nafarroako Gobernuak. Zeintzuk diren horri buruz dituen datuak.

Etxebizitza bioklimatikoak eraikitzeari dagokionez, gaur egun hainbat ekimen burutu dira. Zolinar kasuan, berriz, urrats bat gehiago eman nahi da, Europako Batasuneko irizpideak kontuan harturik beti, halaxe islatzen baita V. Programa Markoa I+D delakoan (aurtengo urte bukaeran behin betiko onestea espero den programan, alegia), lehendabiziko jardueraren barruan, “Energia, ingurugiroa eta garapen sostengarria” izeneko gaikako programan, eta aldi berean, baita “Bihar-ko hiria eta kultur ondarea” izeneko jarduera kla-bearen barruan ere.

Dena dela, etxebizitza askorekin eginiko esperientzia bioklimatikoak ere badira; esaterako, Eguzki-Auzunea 3 Pefky-Lykovryssi, Atenas-en kanpoaldean, guztira 435 etxebizitza baitira. Zolinar egiten den planteamendu berari jarraituz, denetik garatu dute han, besteak beste: etxebizitza bioklimatikoak, eguzki-kolektoreak, pilaketa interestazionala, bero-ponpak... Horrela, energia-arrazte garrantzitsua lortu dute.

3. Europako Komunitatearen zer laguntza lor litekeela aurreikusen duen Nafarroako Gobernuak, proiektu-mota honentzat egun dauden laguntza-programetan oinarrituz. Horietako azken “paketerako” 140 milioi Ecu-ko dirulaguntzak aitor-tu dira.

Gaur egun, Nafarroako Gobernuak dagoeneko dirulaguntza eskatu dio Europako Batasunari, THERMIE Programaren bidez, guztira 2.477 Ecu-koa, hau da, 412,51 milioi pezetakoa.

Aurreko erantzunean azaldu denez, jarduera hori egunen bateko V. Programa Markoa I+D delakoaren barruan sarturik dago. Programa horretan, “Energia, ingurugiroa eta garapen sostengarria” gaikako programaren barruan, 2.088 milioi Ecu-ko dirulaguntzak aurreikusita daude.

Horrez gainera, baliteke Europako beste programa batzuen dirulaguntzak lortzeko aukerarik ere izatea; esaterako, hortxe dago ALTENER programa.

4. Zer dela-eta erabaki duen Nafarroako Gobernuak esperientzia bioklimatiko hau Zolinar putzuan kokatzea, eta ea aurreikuspen hori behin betikotzat har daitekeen.

Hautaturiko kokalekuak honako abantailak dauzka:

– Jarduera aurrera eraman nahi den lursailak Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa dira.

– Gaur egun, degradaturiko espazioa da, baliorik gabea, eta bertako ingurugiroa leheneratzeko azterketa hasita dago.

– Hegoko hegala pittin bat aldapatsua denez, kokalekua ezin hobea da eraikinak orientatzeko.

– Ur-masa bat dago, Zolinako putzua alegia. Horrek abantaila garrantzitsuak dakartzkio hiriaren funtzionamenduari, esaterako: neguan isladapen-gatiko eguzkitze-mailaren gorakada, efektu hozkarria udan,...).

– Iruñetik hurbil egotea.

Arrazoi horiengatik guztionatik erabaki da Zolinako putzu inguruak ezin egokiagoak direla jarduera hori aurrera eramateko, eta Gobernuak aztertzeari ekin dio tamaina horretako ekimena bideragarria den edo ez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 6an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nekazaritza Ganbaren arloan lekualdatutako langileek dituzten eginkizunei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Xabier Vélez Medrano Foru Parlamentario jaunak Nekazaritza Ganbaren arloan lekualdatutako langileek dituzten eginkizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Ezker Abertzalea” Parlamentuko Taldeko Francisco Javier Vélez Medrano jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nekazaritza Ganbaren arloan lekualdatutako langileek dituzten eginkizunei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Abuztuaren 1eko 1327/1997 Errege Dekretuaren argitalpenaz geroztik, Nafarroak bere gain hartu ditu, besteak beste, Estatuak Nekazaritza-Ganberaren arloan lekualdatutako eskumenak; eta ondorioz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari atxikiriko langileek ondoko eginkizunak bete behar dituzte:

PAC-ek ematen dituen eskaera bakarreko dirulaguntzak (belardi-azalerak, txahalak, behiak eta ardiak) kudeatzen lagundu.

Nekazaritza Politika Bateratuari dagozkion eskaera zaharrei buruzko erreklamazio eta aldaketak jaso.

Ardi eta Behi-azienden sari-eskubideak kudeatzen lagundu.

Mendiko Kalteordain Konpentsatzailea (I.C.M.) kudeatzen lagundu.

Nekazaritza-lurretan basoak sartzeko dirulaguntza publikoen berri eman.

Nekazaritza-ustiapenak hobetzeko dirulaguntzen berri eman.

Mahastizantzaren katalogoa erregistratu eta gaurkotzeko informazioa eskaini.

Landaketak, landaketa-ateratzeak, ordezkape-nak, titulartasun-aldaketak eta mahastizainen eskubideak gai hartuta, hainbat dirulaguntzak kudeatzeko espedienteen berri eman.

Esparrago-landaketak erregistratu eta gaurkotzen lagundu.

Landaketei buruzko eta nekazaritza-tresnei buruzko estatistikak bultzatu.

Negutegiei buruzko estatistikak bultzatu.

Hondamen-kalteengatiko dirulaguntzak kudeatzen lagundu.

Nafarroako nekazaritza-ustiapenen erregistroa gaurkotu.

Nekazari-giroko errentamendu-kontratuak betetzen lagundu.

Erroldari eusten lagundu eta landaketei eta oli-bondo eta frutarbolak ateratzeari ematen zaizkien dirulaguntzen berri eman.

Nafarroako Nekazaritza-Ganbararako hauteskundeak antolatzen lagundu.

Nekazaritza-gaietan ondasun-titulartasunari buruzko txostenak igorri.

Estatutuak egiten eta behar den dokumentazioa prestatzen lagundu (Transformazio-Nekazaritza Elkartek (SAT) eratzeko); eta aktak igorri eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuarekin horiek kudeatu, inskriba eta erregistra daitezzen.

Abere-identifikaziorako materiala zabaldu (belarritakoak eta beste).

Zaldi-mugimenduei buruzko inprimakiak banatu.

Osasun-dokumentuak banatu.

Nekazaritza-makineria matrikulatzen lagundu.

Oro har, langile hauek, funtsean, nekazaritza-jarduerei loturiko eskabideak jasotzen dituzte; horiek betetzen lagundu ondoren, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko bulego zentrali igortzen dizkiete, kudeatu eta erabaki ditzaten; horrez gain, nekazari eta abeltzainen kontsultak argitzeaz ere arduratzen dira.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Lurzatien baterakuntza-espeditente zenbaitzuen ebazpenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak lurzatiei baterakuntza-espeditente zenbaitzuen ebazpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 24ko 15. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeak galdera egin du lurzatiei baterakuntza-espeditente zenbaitzuen ebazpenaren aldetari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1. Lurzatiei Baterakuntzari (Oinarriak, Proiektua, Akordioa eta abar) datzekion lanak, txostenak eta abar, gaien espezialistak diren enpresei esleitzen zaizkie, eta hauen izaera publikoa kontuan izanda, prozedura agindu bidezkoa da.

2. 1996an 66 agindu burutu dira; horietatik 46 Foru Komunitatean helbidea duten enpresa publi-

koi eman zaizkie eta 20 helbidea kanpoan baina Iruñean bulegoa irekita duten enpresa publikoei.

1997an burututako aginduak 69 izan dira; horietatik 53 Foru Komunitatean helbidea duten enpresa publikoei eman zaizkie eta 16 helbidea kanpoan baina Iruñean bulegoa irekita duten enpresa publikoei.

3. Aginduek Lurzatiei Baterakuntzaren fase desberdinetan egin beharreko lanak biltzen dituzte.

Lan hauek Nekazaritzako Egituren Zerbitzuko eskualdeko zenbait arduradun teknikok gainbegiratu dituzte. Aginduan baterakuntza-prozesuan sor daitezkeen alegazio edo errekursoei dagozkien txostenak biltzen dira. Lurzatiei baterakuntza-prozesua amaitu ondoren, jarraipena eginez gero, hala badagokio, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren erantzukizuna litzateke, Nekazaritzako Egituren Zerbitzuaren bidez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

“Rioja” jatorri izendapenari eta bere Kontseilu Arauemaileari dagokienez, lankidetzaz hitzarmenerako proiektuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Rioja” jatorri izendapenari eta bere Kontseilu Arauemaileari dagokienez, lankidetzaz hitzarmenerako proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko martxoaren 2ko 16. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 13an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Rioja” jatorri izendapenari eta bere Kontseilu Arauemaileari dagokienez, lankidetzaz hitzarmenerako proiektuei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

1.- 1997ko irailaren 24an Nafarroako Parlamentuari igorri zitzaion erantzunean, Landa jaunak gai horri buruz eginiko galdera zela-eta, gaiaz arduratzen diren hiru Departamentuetako ordezkarien arteko harremanak laster hasiko zirela ematen zen aditzera, Hitzarmenaren proiektuari behin-betiko bultzada emateko asmoz.

Izan ere, hartaz geroztik zazpi lan-bilera egin dira. Bilera horietako seik izaera teknikoa zuten; artean, besteak izaera politikoa izanik. Hiru Kontseilariak parte hartu zuten.

Proiektua geldirik dago, oraingoz konponezinak diren zailtasunak sortu direlako. Errioxako Gobernuak Batzorde Parekideari eman nahi dion zereginaren arabera, Batzordea izanen litzateke kontrol, ikuskapen eta zigor-erakunde bakarra, KJI-ari dagokionez. Zeregin hori, ordea, ez dator bat Eusko Jaurlaritzako eskakizunarekin, aipaturiko zereginak Nekazaritza-Departamentuen esku egon behar direla uste baitu.

2.- Mahastiaren, Ardoaren eta Alkoholen Estatutuaren 25/70 Legea aldatzeko tramitazioa abian dago, eta horrek Kontseilu Arauemaileak arautzen dituen legediari ziuraski aldaketa handi samarra ekarriko dio; Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak laster egitekoak direnez, behean sinatzen duena ez da oso baikorra gaurko legegintzaldian Hitzarmena egia bihurtzeko behar den akordioa lortzeari dagokionez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 6an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Nafarroako Gobernuko Prentsa Zerbitzuaren euskararen erabilerari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak Nafarroako Gobernuko Prentsa Zerbitzuaren euskararen erabilerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak galdera egin du Nafarroako Gobernuko Prentsa Zerbitzuaren euskararen erabileraren aldatzeko buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1. Uste al du Nafarroako Gobernuak zuzena eta egokia dela Prentsa Zerbitzuak bere lan guztia egitea Foru Hobekuntza Legearen 9. artikuluko ofizialtzat aitortzen dituen bi hizkuntzetatik bakar batean?

Komunikazio Zerbitzuak ez du bere barne-lana hizkuntz bakar batean egiten, prentsa-materialari buruzko lanaren pisua –bai espainieraz bai euskaraz– desberdina dela argi dagoen arren, adierazitako bi hizkuntzetan sortutako informazioen bolumenari dagokionez, Nafarroan argitaratutako komunikabideen esparruan.

2. Nafarroako Gobernuak jarraibiderik eman al dio Prentsa Zerbitzuari soilik gaztelania erabil dezan bere lanetan?

Komunikazio Zerbitzuak espainiera edo euskara beharrezkoa izan denean erabili ditu, eta hala egiten du aurrerantzean ere, komunikazio-prozesuen berezko premiaren arabera, baina ez derri gorrezko eta egunero gaineratutako zeregin gisa.

3. Uste al du Nafarroako Gobernuak Prentsa Zerbitzuan langile gutxiegi daudela euskaraz lan egiteko eta berriak euskaraz emateko?

Kontua ez da hizkuntz jakin batean Komunikazio Zerbitzuaren lanerako nahikoa giza baliabide dauden ala ez. Adierazitako Zerbitzurako giza baliabide horien beharrak orokorrak dira, bai eta beste hainbat zerbitzurako ere, eta ez dira arloka hartu behar, eraginkortasunez aprobetxatu nahi badira.

4. Zein epetan uste du Nafarroako Gobernuak has daitekeela Prentsa Zerbitzua berriak euskaraz ematen?

Une honetan ez dugu uste lehentasunezkoa eta premiazkoa denik Nafarroako Gobernuko Komunikazio Zerbitzuak berriak eta oharrak zabalteko normalean euskara horretarako erabiltzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluko eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 13an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Administrazio publikoetako langileen eskubide pasiboen erregimena arautzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentario andreak Administrazio publikoetako langileen eskubide pasiboen erregimena arautzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 24ko 15. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko Francisca Catalán Fabo Foru Parlamentario andreak galdera egin du administrazio publikoetako langileen eskubide pasiboen erregimena arautzeari buruz. Hona Lehendakari-tza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1. Zer jarduera egin ditu Nafarroako Gobernuak gai honi buruz?

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzupeko Langileen Estatutua arautzen zuen martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legea indarrean sartu ondoren, eta Lehendakari-tza eta Barne Departamentuan eskura dagoen dokumentazioaren arabera, 1989 urtean zenbait azterlan egitea agindu zuen Bahitetxe desberdinen egoera ekonomiko-finantzarioa aztertzeke, bai eta Bahitetxe horietako langileak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean barne hartzeke ala ez hartzeke aukera aztertzeke ere. Jardunezko izaerako adierazitako azterlanek ez zuten proposamen zehatzik eman Gizarte Segurantzaren aurrean.

1997 urteko lehen seihilekoan Tokiko Administrazioaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiek Bahitetxeen eta bertan adskribatutako langileen arazoa jorratzen eta aztertzen dituzten zenbait txosten landu dituzte.

Adierazitako azterlanak sindikatuei eman zitzaizkien eta hilabete honetako 9an, hain zuzen ere, Hitzarmenaren Batzorde Parekidearen bilkura izan zen txosten horietan egiten diren azterketak sakontzeko eta egin ziren iradokizunak jorratzeko.

2.- Zenbat alditan bildu da edo zer kontaktu izan ditu Gizarte Segurantzarekin, eta halaber Administrazio Publikoaren Ministerioarekin?

Kontseilari hau idatziz zuzendu zitzaion Lan eta Gizarte Gaietarako Ministroari, Gizarte Segurantzako eta nire Departamentuko goi-mailako arduradunen arteko lan-bilkura eskatuz, udal-enplegatuak Gizarte Segurantzaren barne hartzearen bideragarritasuna ala ez aztertzeke, bai eta Nafarroako Gobernuaren enplegatuak ere, hala bazegokion.

Eskari honen erantzun gisa Gizarte Segurantzaren Estatuko Idazkaritzak bilera baterako deia egin zuen joan den otsaileko 23rako. Bilera hori ez zen egin, bezperan Estatuko Idazkariak bilera bertan behera utzi baizuen, sortu zitzaizkion zenbait konpromiso saihestezin zirela-eta. Bilera hori duela gutxi egin zen Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioan, eta Ministerioaren aldetik Gizarte Segurantzaren Estatuko Idazkari jauna eta Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendari Nagusi andrea eta Nafarroako Gobernuaren aldetik izenpetzen duen hau nire Departamentuko bi goi-mailako kargudunekin batera bertaratu ziren.

3.- Zer egutegi du aurreikusia Nafarroako Gobernuak 1998rako?

Aurtengo lehen seihilekoan, adierazitako bileran lortutako ondorioen arabera, Nafarroako Gobernuak Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak Bahitetxe desberdinei buruz eta Gizarte Segurantzaren barnehartze posibleak ukitutako Nafarroako Administrazio Publikoetako jarduneko langileei buruz behar dituen datuak, estatistikak eta abar emanen dizkio, Ministerioak aipatutako langileak Gizarte Segurantzaren barne hartzeke proposamena egin ahal dezan.

Adierazitako proposamena aztertu ondoren, dagokion kotraproposamena egiten da, hala badagokio, lortu nahi den helburua aurtengo ekitaldia amaitu aurretik ekimena bideragarria den ala ez jakitea dela kontuan izanda.

4.- Zer ikerlan egin ditu Nafarroako Gobernuak?

Galdera honi erantzun honetako aurreko puntuetan erantzun zaiola uste dugu.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 16an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Estatu mailan farmazia-faktura gutxitzeko berrikitan hartu den akordioak Nafarroan izanen duen eraginariburuzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Estatu mailan farmazia-faktura gutxitzeko berrikitan hartu den akordioak Nafarroan izanen duen eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak galdera

egin du Estatu mailan farmazia-faktura gutxitzeko akordioak Nafarroan izanen duen eraginari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

98ko urtarrilean Farmaindustria enpresarekin eginiko itunak farmazia-industriak 1998 urterako 39.154 milioi pezetako ekarpena egingen duela adierazten du.

Akordioak ez du ezartzen Estatuko Osasun Zerbitzu desberdinen artean diru-kopuru hori nola banatuko den.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Medikuntza espezialitate batzuetako kontsultak emateko dagoen atzerapenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andeak Medikuntza espezialitate batzuetako kontsultak emateko dagoen atzerapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 3ko 11. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera egin du medikuntza-espezialitateetako atzerapenari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentarioaren galderen aurretik dagoen testuari dagokionez, beharrezkoa da ondoko aurretiazko kontsiderazioak egitea:

Lehenengoa- Ez da inolako eztabaidarik izan Medikuen Sindikatuarekin itxaron-zerrenden interpretazioari buruz; interpretazio-aldeak eztabaida-

garriak dira, baina kasu honetan adierazitako sindikatuak eginiko errore aritmetiko nabarmenaren aurrean gaude, eta errore hori frogatu daiteke, onartzen den ala ez alde batera utzita.

Bigarrena- Kanpoko kontsulten itxaron-zerrendak 1996 urtearekiko gutxitu direla baieztatzen da, eta egiazta daiteke:

1996ko irailaren amaieran 24.057 erregistro jasota zeuden kontsulten itxaron-zerrendan, eta 1997ko irailean 19.994 erregistro zeuden jasota zerrenda beretan. 1997ko abenduaren 31n itxaron-zerrendan zeuden erregistroak 18.000 ziren.

Hirugarrena- Egia da zenbait espezialitatetako atzerapena besteetakoa baino handiagoa dela, baina hori ez zaio zor itxaron-zerrendetan dagoen paziente-kopurua handitu izanari, espezialitate horietan izandako hobekuntza besteetan izandakoa baino txikiagoa izan denari baizik, eta ez dago esaterik zerbitzuak kolapsatuta daudenik, guztiak ere jarraitzea beharrezkoa deneko hobekuntzaren bidean sartzeko duten jarduteko gaitasuna frogatzen ari baitira.

Laugarrena- 1997ko irailean argitaratutako datuak aipatzen dituzu, eta 1997ko abenduan argitaratutako datuak oraindik eskura ez badituzu, egoera ondokoa da:

	Sept. 97	Dic. 97
Alergologiako Kontsultak	3128	2264
Oftalmologia Kontsultak	4004	3301
Traumatologia Kontsultak	3253	3000
Traumatologia interbentzioak	1201	1265

Berriro ere ziurta diezazuket kontsultetako itxaron-zerrendetako bilakaera nahiko positiboa dela –Alergologia eta Oftalmologia gutxieneko historikotan daude, esate baterako–, eta egoera ezin hobean dagoen espezialitaterik ez dagoen arren, joera ona dela eta kolapsatutako zerbitzurik ez dagoela esan daiteke.

Zure galderaren termino zehatzei dagokionez:

1. Sendagile espezialista nahiko jartzea zerbitzu bakoitzaren beharrei erantzun ahal izateko.

Sendagile espezialisten kopurua egokia da beharren arretaz gain, zerbitzu-mailaren arian-ari eta etengabeko hobekuntza ahalbidetzeko, laguntzako zentro bakoitzeko programan bildutako aurreikuspenen arabera.

Ildo honetan egiten diren jarduketak epe motzera emaitza ikusgarriak lortzera baino eten-gabeko hobekuntzako dinamikari eusteko gai diren giza taldeak osatzera zuzenduta daude,

esparru horretan amortizazio-, sorkuntza- eta lanpostuetarako deialdi-dekretuak bateratuz (urtarrilaren 26ko 14/98 foru dekretua eta 259 lanpostuen sorkuntza-dekretua egiturazko izaerako aldi baterako kontratazioak gutxitzeko dekretua, gutxi barru argitaratuko dena).

2. Baliabide teknikoak eta giza baliabideak jartzeari traumatologian, medikuntza orokorrean eta O.R.L.en dauden itxaron zerrendei erantzuteko.

Medikuntza Orokorreko itxaron-zerrenda kirurgikoak esaten duzunean Zirujia Orokorra esan nahi duzula uste dugu, izan ere Medikuntza Orokorrak ez baitu jardura kirurgikorik gure ospitaletan.

Zirujia Orokorra

I.Z. Kontsultak			I.Z. Kirurgikoa		
Irail. 96	Irail. 97	Aben. 97	Irail. 96	Irail. 97	Aben. 97
892	421	301	938	899	946

Kanpoko kontsulten itxaron-zerrendaren zati oso esanguratsua kentzea lortu izana, itxaron-zerrenda kirurgikoaren mailak mantenduz, hobekuntza nabarmena izan da zerbitzuaren egoera orokorrean, eta honela, 1998rako 1997an batez ere kontsulten jarduerari zuzendu diren baliabideen zati bat lekualdatu nahi da, kontsultan jadanik lortutako mailak mantenduz zerrenda kirurgikoa gutxitu ahal izateko, guztirako baliabide erabilgarrietan garrantzizko aldaketarik planteatu gabe.

ORL

I.Z. Kontsultak			I.Z. Kirurgikoa		
Irail. 96	Irail. 97	Aben. 97	Irail. 96	Irail. 97	Aben. 97
1215	688	1192	596	645	429

Datuen bilakaera argi eta garbi positiboa den arren, hirugarren hiruhilekoan deribazioen igoera nabarmena gertatu da, eta horrek hautsi egin du kontsulten itxaron-zerrendako gutxitze-joera.

Iruñeko bi ospitaleetan gutxi barru Zirujia Nagusi Anbulatorioa ezartzeak eta aurreikusten den ZNA sareko ospitale guztietan erabilgarri izateak kontsulten itxaron-zerrenda are eta gehiago gutxitzea ahalbidetuko digute, giza baliabideen aldaketa nabarmenik gabe, horrek antolamendu-ahalegin handiagoa eta gastu handiagoa eskatu duen arren.

Traumatologia

I.Z. Kontsultak			I.Z. Kirurgikoa		
Irail. 96	Irail. 97	Aben. 97	Irail. 96	Irail. 97	Aben. 97
3157	3253	3000	1101	1201	1256

Itxaron-zerrenden bilakaera ez da positiboa kasu honetan, baina ezin da, hala ere, zerbitzua kolapsatuta dagoenik esan, ez eta gutxiagorik ere.

Izan ere, 1998rako programatutako jarduera kirurgikoan %10eko hazkundera eta Ubarmin Klinikarako lehen bisitaldietako jardueraren %6koa ahalbidetzen duten baliabide materialen eta giza baliabideen ekarpena planteatuta dago, eta horrek guztiak atzerapen handiena duten patologietan modu selektiboan eta profesionalekin adostutakoan izanen du eragina.

Zentro horretako jarduera erabakiorra da espezialitate honek Foru Komunitatean duen bilakaerarako, eta ondokoa adierazi beharra dago; nahiz eta 1997an programatutako ebakuntzak %5,35 igo diren, jardueraren hazkunde honek eskariaren presio handiagoa gain hartzea ahalbidetu du, baina ez ordea itxaron-zerrendak gutxitzea, eta horixe da, hain zuzen ere, 1998rako helburua, eta horri ekinen zaio espezialitate honetako zerbitzu desberdinekin batera.

3. Kanpoko Kontsulten Zerbitzura deitzen duen jendeari erantzun ahal izateko behar diren baliabideak.

a) Urtarrileko lehen hamabostaldian 42-20-20 telefono-zenbakirako deien gainezka egotearen berri izan da.

Hori dela-eta, ondoko ekintzak bideratu ziren arazoa konpontzeko:

- Adierazitako telefono-zenbakirako deien trafikoaren azterketa.

- Zitazio-zerbitzuaren telefono-arretarako beste lanpostu bat prestatzea (ordenadorea, linea tele-

fonikoa, telefonoa eta aurikularrak, zitazioko programa informatikorako konexioa)

- Tutera eta Lizarrako Osasun Arloekin harremanetan jartzea adierazitako eskualdeetako pazienteentzat zitako zirkuitu berria ezartzeko, pazienteek beraiek Vianako Printzea Kontsultategiko adierazitako telefonora deituz zita lortu behar izatea saihestuz.

b) 1998ko otsailaren 5etik aurrera ondoko soluziobideak ezarri dira arazoa konpontzeko:

I. 42.20.20 telefono-zenbakiaren telefono-arretarako oso-osorik zuzendutako beste lanpostu bat gehiago eskaintzea eta zerbitzua indartzeko beste lanpostu bat gehiago partzialki eskaintzea puntako orduetan.

II. Tutera eta Lizarrako Osasun Arloetako pazienteen zitazioa postaz edo faxez eginen da dagozkion ospitaleen eta Vianako Printzea Kontsultategiaren artean, bi helburu lortzeko xedez:

- Herritarrari zerbitzua erraztea, zita herritarrak berak lortu behar izatea saihestuz.

- 42.20.20 telefono-zenbakira egindako deien kopurua gutxitzea.

c) Neurri hauen bidez zitazio-telefonoaren gainezka egotearen arazoa konpontzea espero da; dena den, neurri horien jarraipena burutuko da, neurri gehiago hartzea beharrezkoa gertatuko balitz.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko itxaron zerrendei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak Tuterako Reina Sofía Ospitaleko itxaron zerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 16ko 13. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Askotarikoa” Parlamentuko Taldeko (Grupo Mixto) Martín Landa Marco jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuterako Reina Sofía ospitaleko itxaron zerrendei buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein diren azterketa ginekologikoen kasuan dagoen izugarrizko atzerapen horren zergatiak, eta zer neurri hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak hori ekiditeko.

Otsailaren 29ra arte, Ginekologiako lehen kontsulta egiteko dauden itxaron egunak 26 dira guztira; eta bigarren kontsulta egitekoak 26 ere bai. Beraz, arrazoizkoa ez den atzerapenik dagoenik ez da egia. Ziuraski, “umetoki-lepoko minbizi goiztiarra detektatzeko” kontsulta (“gine-screening” izenez ere ezaguna, edota “ginekologia azterketak” arrunki deitzen dena) eta Ginekologia Kontsulta nahastu dituzte. Osasun Departamentuaren argibideei jarraituz, detekzio goiztiarraren kontsulta hiru urtean behin egin behar zaie sexualki aktiboak diren emakumei (9 zk.ko txosten teknikoak: Umetoki-lepoko minbizi goiztiarra detektatzea, Nafarroako Gobernuak, Osasun Departamentua, 1994, 28-31 or.); halaxe azaldu zaie Tuterako Inguuruko komunikabideei. Aipaturiko kontsultan azterketa egin eta gero, erabiltzailea erreserba-zerrendaren barruan sartzen da, eta horrek baliteke sententzia faltsua sortzea, zeren azterketa berria egiteko zita ez baitzaio jakinaraziko hurrengo azterketarako aurreikusita dagoen eguna baino hiru hilabete lehenago, hau da, 2 urte eta 9 hilabetera aurreko bisita egin zenetik. Sintomatologia ginekologikorik azalduz gero, Ginekologiari kontsulta eskatu behar zaio, eta bi aste inguru pasata azterketa eginen diote. Emakumeari Laguntza Integrala Emateko Unitatea abian jarritz geroztik, antolamendu hori guztia aldatu eginen da; gure

Inguruan, esaterako, apirilaren 1az geroztik gertatu da hori. Horri esker, emakumeek Ginekologia Kontsultan “aske sartzeko aukera” izanen dute. Gaur egun, Fakultatiboa aukeratzeko askatasun osoa dago.

2.- Zer arazo dagoen Traumatologiari dagokionez, lau hilabetekoa baino luzeagoa den itxaron zerrenda bat egoteko salaketa publikoaren arabera, eta zer neurri hartzeko asmoa duen Nafarroako Gobernuak hori zuzentzeko, itxaron zerrenda hori egiaztatzen baldin bada.

Otsailaren 19ra arte, Traumatologian lehen azterketa egiteko 48 egun itxaron behar zen; eta 71 egun, bigarren azterketarako. Dena dela, arrazoi medikoengatik itxaron behar ez luketen kasuak detektatzeko printzipioari jarraituz, azterketa lehenago egiteko hainbat mekanismo daude, patologiari buruzko balorazioaren arabera. Bigarren azterketen kasuan, fakultatiboa bere irizpideetan oinarrituta, erabiltzaileari zita eman ahal izanen dio egun zehatz baterako. Edozein modutan, Ospitalea Traumatologia eskaeraren gorakada aztertzen hasi da.

3.- Zein zen Tuterako Reina Sofía Ospitalean urtarrilaren 31n zegoen itxaron zerrenda, ezpezialitate bakoitzean.

Otsailaren 19ra arteko itxaron zerrenda Eranskinari gehitu zaio. Gaur egun jasaten dugun informazio-sistemaren aldaketa dela eta, ezin izan da urtarrilaren 31ra artekoa lortu.

4.- Zein egun-kopurutik aurrera kontsideratzen duen Nafarroako Administrazioak itxaron zerrenda dagoela.

1) Itxaron zerrenda

Lehen Kontsultaren zain dagoen gaixo-kopurua guztira.-

Hilabeteko azken eguna amaitzean, espezialitate bakoitzean (zita emanda edo eman gabekotan, baldin halakorik balitz), ikustaldiaren zain dagoen gaixo-kopurua zenbatu egiten da.

Lehen Kontsultaren Berandutzea. Hileko azken egunean zenbat lanegunetako berandutzea dagoen begiratzen da, espezialitaterik espezialitate.

5.- Tuterako aipaturiko zentroko itxaron zerrendei dagokionez, egoera nolakoa den jotzen duen:

– Normalizatua.

- Hobetu daiteke.
- Hobetu behar da.

Erantzunaren arabera, zer egiten ari den Foru Gobernua hori lortzeko.

Edozein egoera hobetu daiteke beti, eta ildo horretatik ari gara lanean.

Edozein egoera hobetu daitekeen arren, Eranskinean azaltzen diren kopuruak inguruetako beste komunitate batzuenak baino hobeak dira. Areago, inguruko herri horiek nahiago dute Tuterako Ospitala erreferentzia-zentrotzat izatea, larrialdietarako ezezik, baita espezializaturiko laguntzarako ere, halaxe baieztaturik baitago dagokion prentsan. Zuzendaritza honek gogoeta

piska bat egitea eskatzen du egite honi buruz: 80.000 herritar erroldaturik dagoen inguruan, espezializaturiko 90.000 kontsulta baino gehiago izan dira urtean. Kopuru horrek gehiegizkoa dirudi.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 4an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

(Oharra: aipatu eranskina Foru Parlamentarien esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroetan, basektomia zerbitzuko itxaron zerrendei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroetan, basektomia zerbitzuko itxaron zerrendei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 24ko 15. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeak galdera egin du Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako Zentroetan, basektomia-zerbitzuko itxaron-zerrenden aldaketari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

Zein da, batezbeste, basektomia bat egiten denetik zerbitzu hori ematen den arte itxaron

behar den denbora Nafarroako Gobernuaren menpeko Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako zentro bakoitzean, 1997ko abenduaren 31n?

1997ko abenduaren 31n, itxaron-zerrendan zegoen gizonezkoen kopurua 110 zen, Famili Orientazio eta Sexu Hezkuntzako bi zentroetan (Andraize eta Iturrama).

Hilero egiten den basektomia-kopurua kontuan izanda, 1997ko abenduan izena eman zuenari basektomia uztailean edo abuztuan eginen zaiola aurreikusi daiteke.

Orkoiengo Barrutiko Argia Udal Zentroan atzerapen-denbora hilabetekoa da, eta basektomia bakoitzeko prezioa 18.000 pta., gehi 1.000 pta. basektomiaren ondorengo semen-kontrol bakoitzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko martxoaren 3an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Haizerrota parkeak eraikitzeke izapidegintza-espedienteei buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak haizerrota parkeak eraikitzeke izapidegintza-espedienteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko otsailaren 16ko 13. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko martxoaren 18an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Ezker Abertzalea” Parlamentuko Taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Haizerrota parkeak eraikitzeke izapidegintza-espedienteei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1. Zenbat dira eta zein egoeratan aurkitzen dira haizerrota parkeak eraikitzeke izapidegintza-espedienteak?

Administrazio-baimena eskatuta daukaten haizerrota parkeak, eraikitzeke baimena daukaten parkeak, 2000. urteaz geroztiko berrikuspena pasa arte baimenduko ez diren parkeak eta baimenik jaso ez duten parkeak ondoko taulan zehazturik daude.

	Solicitado	Autorizado	A Revisar	Desestimado
Caparroso	x		x	
Montes del Cierzo	X			X
Cabeza Moro	X	X	X (p)	
Serralta	X	X		
Plana Bandera	X	X	X (p)	
Alfarillo	X		X	
Pta. Loma Negra	X		X	
Ablitas	X			X
San Esteban	X	X		
Lakarri (d)	X			X
San Pelayo	X			X
Uzkita	X	X		
Taxoare	X			X
NO. S. Izco (d)	X			X
Eskintza (d)	X		X	
Zirauki	X	X		

Uxue	X			X
Caluengo	X	X		
Iturza	X			X
El Perdón	X	X		
Leitza-Beruete	X	X		
Baztaria	X			X
Iruñarri	X		X	
Soraxipi	X		X	
Belate	X		X	
Orbara	X			X
Erronkaribar	X			X
Andia	X		X	
Goñerri	X		X	
Azantza-Etxauri	X		X	
Uridiano	X		X	
Hiriberri	X	X		
Raso de Vitoria	X		X	
Alaitz	X	X		
Tabar	X			X
Izko	X	X		
Codés	X		X	
Cábrega	X		X	
Santa Agata	X		X	
Chucho Alto	X		X	
Planas de la Negra	X		X	
Beruete	X	X	X (p)	
Gerinda	X	X		
Peña Blanca	X	X		
Altos de Pozuelo	X		X	
Eskintza	X			X
Zurundain	X			X
S. de San Pedro	X		X	
Altxkibel	X	X	X (p)	
Salajones	X	X		
Malkitz	X			X
San Migel	X			X
Lakarri (E)	X			X
Petilla de Aragón	X			

Gaur egun, PSIS banaren bidez ondoko parkeak daude izapidetzeko bidean: Caparroso, Cierzo-ko mendiak eta Plana Bandera eta El Perdón, Leitza-Beruete, Baztaria, Iruñarri, Soraxipi, Belate,

Orbara, Erronkaribar, Andia, Goñerri, Azantza-Etxauri, Uridiano, Hiriberri, Raso de Vitoria, Alaitz, Tabar, Izko, Codés, Cábrega, Santa Agata, Chuchito Alto, Planas de la Negra, Beruete, Gerinda, Peña Blanca, Altos de Pozuelo, Eskintza, Zurundain, San Pedro m., Altxkibel, Salajones, Malkitz, San Migel eta Lakarri.

2. Zeintzu dira administrazio-baimenak emateko aukerak?

Oro har, 36 haizerrota parke baimentzera irits liteke gehienez Nafarroan. Kontuan izan behar da, ezen, parke horien erdiek baimena daukatela noiz berrikusiko zain, eta kasu askotan, lurraldearen antolamendu-, ingurugiro- eta paisaje-irizpideak direla eta, behin betiko baimena ematea ez dela aholkatzen.

3. Zein baldintzatan ematen dira? Berrikusten al dira?

Haizerrota parkeak izapidetzeko espedienteak ondoko legediak arautzen ditu:

- 125/1996 FD, otsailaren 26koa, parke eoliko-en ezarpena arautzen duena.

- 685/1996 FD, abenduaren 24koa, parke eoliko gahiagoren onespena bertan behera urzten duena.

- Ingurunean egitekoak diren herrilan plan eta proiektuak Ingurugiroan duten Eraginaren Azterketak arautzen dituen uztailaren 19ko 229/1993 Foru Dekretua.

- 10/1994 FL, uztailaren 4koa, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintza Departamentuarena.

- Nafarroako Energi Plana, 1996ko urtarrilaren 31ko Erabakia, Nafarroako Parlamentuko Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuarena.

- 3275/82 Errege Dekretua, azaroaren 12koa (E.B.O. 82.12.1), zentral elektriko, azpiestazio eta transformazio-zentruetan izan-beharreko Baldintza Teknikoei eta segurtasun-garantiei buruzkoa. Dekretu horren arabera, Udalez gaindiko Eragin-Plan Bereziaren edota Proiektu Bereziaren behin betiko onespenez zera dakar berekin: proiektuan bertan eta eranskinetan sartuta dauden instalazioak eta obrak erabilgarritasun publikoko izendatzea, desjabetzeko edota zortasunak ezartzeko baldin badira; halaber, industri segurtasun-ondorioetarako, bidea libre uzten du instalazioak baimentzen dituen prozedurarekin jarraitzeko.

- 1984ko uztailaren 6ko Agindua (E.B.O. 84.8.1), zentral elektriko, azpiestazio eta transformazio-zentruetan izan-beharreko baldintza tekni-

ko eta segurtasun-garantiei buruzko Erregelamenduen Jarraibide Tekniko Osagarriak.

4. Zein irizpide erabiltzen da, irizpiderik baldin bada, ekimen honen inguruan edota sor daitekeen beste bakarren baten inguruan hainbat lurralderi betoa jartzeari dagokionez?

Nafarroako Parlamentuak onetsitako Nafarroako Energi Planaren aurreikuspenak kontuan harturik beti, Ingurugiro Departamentuak hainbat irizpide finkaturik dauzka Haizerrota parkeak poliki-poliki, zuhurtziaz eta zentzu onez hedatzeko, haizerrotek eta linea elektrikoek ahalik eta inpakturik txikiena eragin dezaten.

- Administrazio-prozesuan, zorrotz betetzen da otsailaren 26ko 125/1996 FD.aren arau-atala, zeinaren bidez arautzen baita parke eoliko-en ezarpena.

- 2000. urtearen ondoren birrekusi behar diren parkeak, proiektua sakon noiz berrikusiko zain daude baimena jasotzeko.

Hori neurri prebentiboa da: alde batetik, hobekuntza teknikoak egiteko bidea irekitzen du, eta ondorioz, instalatu-beharreko tresneriaren produktibitatea eta haizea neurtzeko datuen fidagarritasuna areagotu egiten dira; eta beste alde batetik, eraikitako parkeetan egiten diren ingurugiro-azterketen jarraipenari buruzko hainbat ondorio ateratzeko aukera ematen du. Azkenik, bai teknikariei bai gizarteari oro har, hainbat gogoeta egiteko bidea ere ematen du, esaterako: instalatu diren parkeek zer nolako eragina duten ingurugiro eta paisajearen gainean, haien benetako emaitza zein den, nola eragiten dioten tokiko ekonomiari eta ekonomia orokorrari, e.a.

- Parkeak baimentzeko orduan, ingurugiro- eta paisaje-irizpide hutsak kontuan hartzeaz gain, oinarrizko antolamendu-irizpideak ere erabiltzen dira. Esaterako, lurralde-okupazioaren, produktibitatearen, eta linea elektrikoek kopuru eta luzaeraren arteko erlazioa hobetzea oso kontuan hartzen da, ingurugiro eta paisajearen gaineko inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin.

Ildo horretatik, sustatzaileekin elkarlanean ari dira, instalatu-beharreko parke eta linea elektrikoek kopurua jaitsi eta ingurugiro-irizpideak produktio-irizpideekin bat etor daitezzen. Parkeak lurralde osoan hedatu beharrean, zuhurrago iritzi zaio parkeak lurraldeko leku zehatz batzuetan hedatzeari. Horrela, ingurugiroaren eta paisajearen gaineko inpaktuak sakabanatzea saihestez gain, hedatu-beharreko linea elektrikoek kopurua eta luzaera gutxitu ere egiten dira, neurri handi batean.

Hala eta guztiz ere, garapen eoliko handia izan litezkeen inguruetan (Nafarroa erdiko hainbat lekutan eta Erriberan) parke-kopuru zehatz bat baimendu da. Beste parke asko, berriz, 2000. urtea pasata noiz berrikusiko zain geratu dira (hau da, leku batean edozein motatako saturazioa ger-

tatuko balitz, zalantzan jarriko litzateke aipaturiko lekuan haizerrota gehiago jartzea).

Iruñean, 1998ko martxoaren 11n

Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 6.000 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 140 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 175 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	---